NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA

# NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN II. PLANA 2022-2023




Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

# AURKIBIDEA


1 SARRERA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 3

1.1 NAFARROAKO PARTE-HARTZE DEMOKRATIKOARI BURUZKO LEGEA . . 6

1.2 NAZIO BATUEN 2030 AGENDA GARAPEN JASANGARRIRAKO. . . . 7

1.3 IGENERO IKUSPEGIA ZEHARKAKOTASUNEZ TXERTATZEA . . . . . . 7

2 "BOLUNTARIOTZAREN I. PLANAREN" IBILBIDEA . . . . . 11

2.1 EGOERAREN DIAGNOSTIKOA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 13

2.2 AMIA (LABURPEN TAULA) . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16

3 NAFARROA OROTAN LAGUN . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 18

3.1 NAFARROA OROTAN LAGUN ESTRATEGIAREN AURKEZPENA . . 19

3.2 MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 20

3.3 ILDO ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 22

3.4 SUSTAPEN ETA GOBERNANTZA ESPARRUA . . . . . . . . . . . . . . . . . 26

4 II. EKINTZA PLANA 2022-2023 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 28

4.1 AURKEZPENA. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 29

4.2 LEHENTASUNEZKO HELBURUAK . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 29

4.3 JOMUGAK 2023 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 30

4.4 ERAGILE GAKOAK . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 34

4.5 EKINTZEN PROPOSAMENA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 35

4.6 KRONOGRAMA. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 39

4.7 PLANAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA . . . . . . . . . . . . . . . . . . 40

5 ERANSKINAK . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 41

1. ERANSKINA: Agente sustatzaileen funtzioak eta osaera. . . . . . 42

2. ERANSKINA: Jomuga, helburu eta ekintzen laburpen koadroa . . 46

# SARRERA

NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA

1

1998ko Nafarroako Boluntariotzaren Legeak deskribatzen duenez, boluntariotza **pertsonen portaera** soziala da, modu libre eta altruistan antolatzen direnean irabazi asmorik gabeko erakundeetan, zerbitzuak emateko pertsonei edo komunitateari, elkartasuna dela helburu.

Boluntariotza **balio handiko tresna da demokrazian sakontzeko**, herritarren parte-hartze antolatuak berez daramatzan balio inplizituengatik eta interes orokorrarekiko konpromisoa irudikatzen duelako, justizia, gizartearen kohesioa eta gizarte inklusiboagoa, harremanez oparoa eta parte-hartzailea bultzatuz.

**Boluntario ekintzak islatzen du guztion onura lortzeko ahalegin kolektiboa, herritarren parte-hartze aktibo, libre, solidario, altruista era arduratsuaren bitartez.**



2018tik 2020ra bitarteko urteetan **Nafarroako Boluntariotzaren I. Plana** inplementatu da, **NAVARRA+VOLUNTARIA / NAFARROA, OROTAN LAGU estrategiaren esparruan**, horrek gidatzen baititu gure Foru Komunitateko erronkak gizarte solidarioago eta parte-hartzaileago baterantz.

Aldi horretan hainbat helburu lortu dira, besteak beste, lehenengoz prestatu da '**Nafarroako boluntariotzari buruzko azterketa**' bat, '**Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunea**' sortu da, web-orri bat abiarazi da: https://navarramasvoluntaria.navarra.es/eu, prestakuntzarako hainbat topaketa egin dira, Estrategiaren etengabeko bultzada pibotatzen duen **Mahai tekniko** bat eratu eta finkatu da, etab.







## Nafarroako Boluntariotzaren I. Planaren ebaluazioa eta II. Plana prestatzeko prozesua

Boluntariotzaren lehenengo plana inplementatu ondoren, 2021ean haren garapenaren eta inpaktuaren ebaluazioa egin da, Boluntariotzaren Estrategia eguneratu eta Ekintza Plan berri bat eratu ahal izateko 2022-2023 aldirako, ekintza berriak identifikatuz eta lehentasunak ezarriz.

Lehenengo planaren ebaluazioa egiteko lan prozesu bat egin zen hainbat eragilerekin, tartean egin zirela gizarte erakundeekiko bilera eta elkarrizketa ugari, eta aintzat hartuz 2020ko azaroan boluntariotzan ari diren erakundeentzako prestakuntza topaketaren ondorioak, eta Nafarroako boluntariotzaren egoerari buruzko galdetegia.

Lehenengo planaren esperientziatik eta ebaluaziotik, hala nola hainbat eragilek egindako ekarpenetatik, abiatuta, Boluntariotzaren II. Planaren zirriborroa prestatu zen, eta ondoren onetsi, 2021ean, Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordean, Nafarroako eragile inplikatuekin eta interesdunekin kontrastatu aurretik.

Aipatutako kontrastea parte-hartze prozesu baten bidez egin zen, non hainbat kanal ireki ziren. Alde batetik, Gobernu Irekiko web-orrian jasotako ekarpenen bidez. Lineako inkesta bat zabaldu zen herritar guztientzat eta pertsona boluntarioentzat, eta 77 pertsonaren erantzunak jaso ziren. Era berean, bi eztabaida-lantegi egin ziren (azaroaren 9an eta 10ean), eta 34 erakundetako 39 pertsonak hartu zuten parte horietan. Kontrastea amaitzeko, aurreko prozesutik ateratako dokumentua partekatu da instituzioetako guneekin, esaterako, Boluntariotzaren Mahai Teknikoarekin.

Prozesu horretan jasotako ekarpen nagusiak txertatu ondoren, Nafarroako Boluntariotzaren bigarren Plana **Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluaren** aurrean aurkeztu zen, 2021eko abenduaren 13an egindako bilkuran, eta hark onetsi egin zuen, azken testuari zenbait ukitu erantsi ondoren.

Sarrera hau amaitzeko, azpimarratu nahi dugu bigarren Plan honen ezaugarri nagusietako bat dela espresuki eta irmo lan egitea hiru printzipio hauek zeharkakotasunez txertatzearen alde:

- **Erabateko sinergia Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Lege berriarekin.**
- **Nazio Batuen Erakundeak proposatzen duen 2030 AGENDAren garapen jasangarrirako helburuekin bat egitea.**
- **Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, genero ikuspegia txertatuz.**

Helburua da bermatzea gizartearen eta instituzioen hiru erronka handi horiek oihartzuna dutela gizarte erakundeetan eta boluntariotzari lotutako pertsonengan, eta beste alde batetik, laguntza eta ikusgarritasuna ematea hiru printzipio horiek, alegia, **parte-hartze demokratikoa, jasangarritasuna eta berdintasuna**, gauzatzeko boluntario ekintza dagoeneko egiten ari den lanari.

## 1.1 1.1-NAFARROAKO PARTE-HARTZE DEMOKRATIKOARI BURUZKO LEGEA

Boluntariotzaren lehenengo ekintza planak indarra izan zuen bitartean, 2018-2020 aldian, azpimarragarria da Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko 12/2019 Foru Legea onartu izana. Lege horren helburua da Nafarroako herritarren parte-hartzea bermatzea eta sustatzea, “demokrazia eredu irekiagoa, integratzaileagoa eta horregatik, herritarren laguntza integratzeko askoz ere gaitasun handiagoa izanen duena, bermatzea”. Horretarako, parte hartzeko bide eta mekanismoak sustatzea eta sendotzea proposatzen du, eta aitortzen du ezinbesteko osagaia dela herritarren parte-hartzea sustatzeko eta sentsibilitatea lantzeko neurriak abiaraztea, Nafarroako gizartean kontzientziazioa zabaltzeko, bai foru administrazio publikoetan, bai herritarren artean ere.

Inongo zalantzarik gabe, boluntario ekintza esparru garrantzitsua da parte-hartze sozialerako, eta modu argian jasotzen da hori, gizarte zibil egituratuago, kohesionatuago eta solidarioago baterako bidea zabalduko duen kultura partehartzaileago bat garatzeko ekimen honetan. Ildo horretatik, beharrezkoa da bermatzea boluntariotzaren sinergia eta lerrokatzea herritarren parte-hartzerako eratuta dauden esparru eta moduekiko.




Espresuki azpimarratzen dugu herritarren parte-hartzea arautu behar duten printzipioetako bat “genero berdintasuna” dela, eta horregatik gure apustua da espresuki printzipio hori plan osoan zeharkakotasunez txertatzearen alde.

## 1.2 NAZIO BATUEN 2030 AGENDA GARAPEN JASANGARRIRAKO.

Beste alde batetik, funtsezkoa da nabarmentzea azken urteetan **Nafarroako Gobernuak atxiki duela NBEk Garapen Jasangarrirako onetsitako 2030 Agenda**. Bide-orri unibertsala da, pobreziari amaiera emateko, desberdinkeriaren eta injustiziaren aurka borroka egiteko eta klima aldaketari aurre egiteko. 2019an formalizatu ziren Agendaren atxikipena, bat egiteko txostenaren onespena, eta Agendaren ezarpena Gobernuaren jarduketen ardatz estrategiko gisa.




Horregatik, ezinbestekoa da bermatzea **NAVARRA+VOLUNTARIA / NAFARROA, OROTAN** LAGUN estrategia eta ekintzak lerrokatzen direla Nafarroako Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta haiei dagozkien jomuga eta adierazleekin.

## 1.3 GENERO IKUSPEGIA ZEHARKAKOTASUNEZ TXERTATZEA

Bigarren plan honek bermatu nahi du zeharkako ardatz gisa txertatzen dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, bere garapen osoan. Politika publiko guztietan ezinbestekoa da genero ikuspegia kontuan hartzea, hartzen diren neurriak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen, bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Apustu horren oinarri dira parte-hartze sozialak berezkoak dituen balioak eta berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako foru legeak eta estatuko legeak.

Estatuaren esparruan, **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak** jasotzen du berdintasun printzipioa zeharkakotasunez jasotzeko betebeharra, administrazio publikoen jarduketetan. Eta **1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, genero indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriak** jasotzen ditu.

Europako eta nazioarteko esparruan, nabarmendu behar da Nazio Batuen 2030 Garapen Jasangarrirako Agendaren **5. helburua. Genero berdintasuna.**

Foru komunitatean, **Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen** 13. artikuluaren arabera, Nafarroako Administrazio Publikoek zeharkakotasunez jaso beharko dute modu aktiboan emakume eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea beren politika publikoetan.

Genero berdintasunaren ikuspegia txertatzeko, emakumezkoek eta gizonezkoek boluntario lanean bizi duten errealitatea ezagutu eta aztertu behar da, haien beharrak, interesak, portaerak..., izan daitezkeen genero arrakalak eta bazterkeriak detektatzeko, eta haiek murrizteko eta berdintasunera hurbiltzeko neurri espezifikoak aktibatu ahal izateko.

Lege horrek, bere III tituluan, ezartzen ditu berdintasun eskubidea bermatzeko mekanismoak, esaterako generoaren zeharkakotasuna, ekintza positiboak, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua, estatistika eta azterketetan datuak sexuaren arabera bereiztea, besteak beste.

Arreta berezia merezi du haren I. kapituluak,  Herritar aktiboak, ahalduntzea eta partehartzea jasotzen baititu:

- **25. artikulua,** Herritar aktiboak, botere publikoek emakumezkoen parte-hartze aktiboa, norbanakoena nahiz kolektiboena, eta haien parte-hartze betea, sustatuko dituzte, gizartearen eremu guztietan.
- **26. eta 27. artikuluak.** Ahalduntzea eta emakumezkoen parte-hartze sozial eta politikoa, botere publikoek ahalduntzearen eta emakume eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioa atxikiko dute botere politikoaren banaketan, eta emakumeen eta neskatoen parte-hartzea sustatuko dute, ordezkaritza gutxi duten esparruetan. Neurri positiboak hartuko dituzte desberdintasun egoerak zuzentzeko.



- **28. artikulua.** Emakumeen ahalduntzea landa eremuan, Nafarroako Gobernuak genero ikuspegia txertatuko du landa garapeneko jarduketetan, emakumeen beharrak jasoz, haien parte-hartze betea erraztuz, berdintasunez, landa garapeneko prozesuetan, eta emakume eta gizonen arteko egiazko aukera berdintasuna lortzen lagunduz.

Beste alde batetik, **Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean**, emakumeen aurkako indarkeriaren agerpenekin lotutako gaiak jasotzen dira, eta horietako batzuei, hain zuzen ere, aurre egin behar izaten diete boluntario lana eman edo hartzen duten emakumezkoek. Horrez gain, gogora ekartzen du indarkeria horrek hondatzen duela emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa, eta 6. artikuluan dio generoan oinarritutako emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduketa instituzionala eta profesionala bideratuko dela emakumeen giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzera.

> Azken finean, boluntariotza ez da generoan edo markatutako estereotipo eta roletan oinarritutako bazterkeria egoeretatik aparte bizi, eta beharrezkoa da sexuan oinarritutako diskriminazio guztiak ezabatzea, zuzenekoak nahiz zeharkakoak izan.

Arrazoi horregatik, bigarren plan honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa txertatu nahi du ildo estrategiko guztietan eta planteatzen diren helburu eta jarduketetan, eta orobat planak indarra duen aldian planteatu daitezkeen jarduketetan. Espresuki proposatzen da, lehenengo urterako, txosten bat prestatzea, boluntario ekin-



tzaren barnean izan daitezkeen genero arrakala nagusiak identifikatzen lagunduko duena (2020an egindako boluntariotzaren azterketa oinarritzat hartuta). Txosten horretan oinarrituta identifikatzen ahalko dira neurri zehatzak fronte desberdinetan erantzuna emateko, dirudienez, hor jarraitzen duten desberdintasunei: emakume gehiago boluntario ekintzan eta osasun nahiz gizarte arloko eginkizunetan (eta txikiagoa babes zibilean, kirolean, etab.); gizon gehiago boluntariotza erakundeen zuzendaritza eta kudeaketa organoetan...

Horrez gain, bermatu egiten da helburuak lortzeko aurrera eramanen diren jarduketa eta neurrietan txertatuko direla berdintasun printzipioa eta genero ikuspegia, planteatzen baitira ekintza positiboak, helburu bereiziak, berdintasun klausulak dirulaguntzetan, datuen analisiak eta ebaluazioak egiteko datuak sexuaren arabera bereiztea, sexuaren aldagaia jasotzea erregistroetan, ebaluazio galdetegietan, etab.

Borondate adierazia da, gainera, hurrengo bi urteetan bermatuta uztea **emakumeek eta gizonek parte-hartze orekatua** izanen dutela Estrategia honen oinarrian diren egituretan: Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua, Boluntariotzaren Departamentu arteko Batzordea, Mahai Teknikoa, Informazio eta koordinazio puntua... Eta prestakuntza ematea haietan parte hartzen duten pertsonei, emakumeen aurkako indarkeriari buruz.

Azkenik, boluntariotzaren bigarren Plan honek aukera zabaldu nahi du **emakumezkoek eta gizonezkoek zaintzan duten erantzukizuna partekatua** izan behar delako ideia sustatzeko, NABIk bultzatutako Zaintzaren aldeko Foru Itunarekin bat eginez.



# “BOLUNTARIOTZAREN I. PLANAREN”
# IBILBIDEA

NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA

2




2013tik aurrera, boluntariotzaren hainbat ekimen eta topaketez osatutako prozesu partehartzaile baten ondorioz, eta Iruñean 2013ko azaroan ***Estatuko Boluntariotzaren XVI. Kongresua,*** (lema nagusia zen ***'Hiritartasuna eraikitzen'***) bildu ondoren, Nafarroako boluntariotzaren Esparru Estrategiko bat sortzen hasi zen.

2014tik hainbat bultzada eman ondoren, azkenik, 2018an hasi zen mamitzen Estrategia bat, **NAVARRA+VOLUNTARIA / NAFARROA, OROTAN LAGUN** izena hartu zuena, eta harekin batera, Ekintza Plan bat, 2018-2020 aldirako. Estrategia horretatik azpimarratu behar da Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Puntua, eta plataforma bat, web Navarra + Voluntaria/Nafarroa, Orotan Lagun.

Modu grafikoan, II. Plan horren aurrekariak denbora-lerro honetan laburbildu daitezke:




2018-2020 aldiko lehenengo Planak indarra izan zuen bitartean, azpimarragarria da **NAFAROA, OROTAN LAGUN** estrategiak konfinamenduaren garaian eta **COVID-19**aren ondorengo faseetan Nafarroako boluntariotzaren esparruan bete zuen papera. Aldi horretan kudeatu ziren material dohaintzak, batez ere enpresek egiten zituztenak, eta Nafarroako Gobernuko departamentuetara bideratzen zirenak. Boluntariotza erakundeen poltsa, eta batez ere, pertsona boluntarioena, ikaragarri hazi zen aldi horretan.

## 2.1 EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Diagnostiko hau egiteko, boluntariotzaren esparruan interesa duten pertsona eta erakunde sorta handi bat hartu da kontuan. Zentzu horretan, nabarmendu nahi dugu interesa duten taldeen **parte-hartze, inplikazio eta koordinazioaren** gradua oso handiak izan direla, eta ez dutela aurrekaririk, gai horri dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatean.

Hurrengo grafikoak jasotzen ditu atal honetan biltzen dugun Diagnostikoa egiteko abiarazitako ekintza guztien nondik-norakoak eta emaitzak.




Ondoren, aipatutako ekintza bakoitzean lortutako input guztiak zehazten dira, eta orobat haietan oinarrituta egindako AMIA azterketa, non Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak biltzen diren, egun boluntariotzak Nafarroako Foru Komunitatean bizi duen egoerari buruz (ikus 2.2 apartatua):

### Boluntariotzaren I. Planean egindako eta egiteko dauden ekintzen balorazioa

II. Plan hau prestatzeko, I. Planean zeuden ekintzak, egindakoak nahiz egiteko daudenak, kontrastatu dira. Han jasotzen ziren 45 ekintzetatik, ondoko hauek geratu ziren egin gabe:

- Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua dinamizatzea (berriro aktibatzea).
- Udal jardunaldiak - udalen jardunbide egokiak (azterketa aurkeztea, etab.).
- Boluntariotzaren aitortza/urteko aipamena (jardunbide egokiak, etab.).
- Boluntariotza eta landa eremuan aurrera eramaten diren bestelako partaidetza mo-

duak hobeki egituratzeko aukerei buruzko txostena egitea.

- Partaidetza: Boluntariotzaren estatuko taldea (autonomia erkidegoetako arduradunak), bisitak egitea bestelako esperientziak/autonomia erkidegoak ezagutzera, Estatuko Kongresuetan egotea, etab.
- Boluntariotzaren Behatokia sortzearen zentzuaz/beharraz jarrera hartzea; aurretik aztertzea sinergia posibleak, Nafarroako Gobernuaren arlo/estatistika tresnekin.
- Modu progresiboan eratzea Nafarroako Gobernuaren boluntariotzaren politika bat.
- Nafarroako boluntariotzaren topaketa egitea.

Balorazioak eta kontrasteak egin ondoren, **Mahai Teknikoa** osatzen duten pertsonek adostu dute lehentasuna ematea Jardunbide Egokien Ereduak sortzeari eta Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua berriz aktibatzeari.

## Erakundeekiko elkarrizketak egin ondoren jasotako ekarpenen analisia

AMIA azterketa egiteko (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak) kontuan hartu dira, orobat, honako hauek:

* “Nafarroa Orotan lagun” plataforma web-orrian dauden erakundeek 2020ko bigarren seihilekoan eta 2021eko lehenengo seihilekoan egindako 46 topaketa presentzialetan egin dituzten proposamenak.

* Boluntariotzan interesa duten pertsonen eta web-orrian inskribatutako 2.000tik gora lagunen entzuketa aktiboa, plataforma horretan izena ematean haien biografiaren datu adierazgarriak ematen dituztelako, eta hainbat galdera erantzuten dituztelako.

## Boluntariotzaren I. Planean egindako azterketak

Ondorengo bi azterketa hauetako datuak jaso dira:



*Nafarroako boluntariotzari buruzko azterketa

(2019an egin eta 2020an argitaratua).

Kontuan hartu dira:

Nafarroako herritarrei egindako 402 inkesta

Nafarroako boluntariotza erakundeetan egindako 114 elkarrizketa.

250 galdetegi pertsona boluntarioei.





**★ Nafarroako boluntariotzaren egoeraren analisia**

2020ko azaroan erakundeentzat egindako prestakuntza ekintza sail baten ondoren egindakoa.

“Nafarroako elkarteen eta boluntariotza erakundeen sarea” prestakuntza topaketatik ateratako ondorioak eta ekarpenak; Nafarroa Orotan Lagun ekimena izan zen antolatzailea, eta Coordinadora Aragonesa de Voluntariado dinamizatzailea.

**37** lagunek parte hartu zuten, 34 erakunde ordezkatuz

**27** galdetegi, boluntariotza programak dituzten Nafarroako erakundeekin

**3** elkarrizketa pertsonalizatuak, egindako galdetegien emaitzak berresten dituztenak.



## Mahai Teknikoa osatzen duten pertsonekin egindako kontrasteak.

Bildutako informazio guztia kontrastatu eta landu da, banakako saioetan, Mahai Teknikoa osatzen duten pertsonekin eta departamentu nahiz erakunde publiko hauetako ordezkariekin: ‘Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua’, ‘Eskubide Sozialak’, ‘Landa Garapena eta Ingurumena’, ‘Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentzia’, eta ‘Nafarroako Gazteriaren Institutua’.

## Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordearekiko kontrastea.

Azkenik, egindako lan eta gogoeta guztiak boluntariotzaren gaia Nafarroako Foru Komunitatean koordinatzen duen Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordearekin kontrastatu dira.

Jasotako balorazio eta ekarpen guztien emaitza taula batean jaso da, AMIA azterketa laburbiltzen duena. Hurrengo apartatuan dago, eta horretan oinarrituta eguneratu da Nafarroa Orotan Lagun Estrategia, eta hasi da definitzen 2022-2023 Ekintza Plan berria.

# 2.2 AMIA (LABURPEN TAULA)




## AHULGUNEAK

- Erregistro gutxi datu fidagarriekin.
- Boluntariotzaren errealitate kuantitatiboa eta kualitatiboa ez dira ezagutarazten.
- Entitateek marketinaren eta komunikazioaren ezagutza eskasa dute.
- Entitateak elkartzeko guneen falta dago (azokak, egoitzak...).
- Profil profesionalak behar dira.
- Boluntariotzaren bilaketaren eta esparruen ezagutza falta da gizartean.
- Behar desberdinak, jarduketa esparru desberdinen arabera.
- Definizio falta eta zailtasuna “boluntariotza zer den eta zer ez den” kontzeptuan.
- Inprimakiak eta dokumentuak digitalizatu eta bateratu gabe.
- Informazio / formazio komun gutxi boluntariotzaren esparru desberdinentzat.
- Parte-hartzearen ziurtagiri bateratuak falta dira.
- Arduradunen eginkizunen gain-karga boluntariotza erakundeen kudeaketan.
- Laguntzekiko eta dirulaguntzekiko menpekotasuna.
- Boluntarioen hasierako prestakuntzaren kostuek ez dute jarraipenik izaten programetan.
- Erakundeen arteko lankidetza areagotu behar da.

## MEHATXUAK

- Gizartearen joera aldatu da (batik bat gazteria).
- Unean uneko kanpainak nahiago izaten dira, denboran luzatzen diren ekintzak baino.
- Balio indibidualetarako joera dago.
- Konpromiso / atxikipen falta dago.
- Gizarte / lan arloko ezegonkortasuna (bestelako lehentasun pertsonalak...).
- Boluntarioen errotazioa handia da, eta erakundearen balioen eta esperientziaren transmisioa galdu egiten da.
- Dirulaguntza, laguntza eta kanpainekiko menpekotasuna gero eta handiagoa da.
- Ez zaio baliorik ematen doakoari.
- Boluntariotzaren erabilera okerra (curriculumean erakusteko, prestakuntza gisa...).
- Kontzeptu desberdinak nahastea, besteak beste, boluntariotza, auzo ekintza, auzolana, eta beste.
- Gainbegiratze lan edota bidelaguntza ezegokiek boluntariotzaren irudia kaltetzen dute.
- Gobernuen konpromiso falta sasoi politikoen arabera.
- Murrizketak aurrekontuetan laguntza eta dirulaguntzetan.
- Pandemia berria.



## INDARGUNEAK

- Nafarroa, elkartasun lurraldea.
- Interesa dago inplikatutako eragile guztien aldetik.
- Herritarren potentzial handia parte hartzeko.
- Administrazioaren proaktibitatea.
- Nafarroa, Orotan Lagun plataforma
- Entitateek arreta taldeak dituzte.
- Estatuko erakundeek bestelako ikuspegiak eskaintzen dituzte.
- Ekarpenak gizarte eta pertsonen garapenerako.
- Nafarroako gizartearen inplikazioa aktiboa.
- Laguntza sostengarria eta sostenitua.
- Gizartean sinesgarritasuna duten erakunde nafarrak.
- Entitateen konpromiso finkoa positibotasunarekin.
- Boluntarioen, onuradunen eta Administrazioaren balorazio positiboa.
- Elkarteen plataformak izatea.
- Sektorearen malgutasuna.
- Kalitate humanoa (pertsona konprometituak eta balore handiekin).
- Eragileen erantzukizun aktiboa jasangarritasunarekin, GJHekin eta elkartasunarekin.
- Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna

## AUKERAK

- Estatu eta foru legeak mesedegarriak.
- Boluntariotzak gizarteari egiten dion ekarpenaren ikusgarritasuna handitzea.
- Boluntarioen balioa azpimarratzea.
- Interesa duten gizarteko eremu eta taldeen ezagutzak batzea.
- COVID-19 pandemiarekin ikastea.
- Ekintza berritzaileak egitea
- Boluntariotza erakundeen eta pertsonen aitortzaren kultura ezartzea.
- Entitateen erregistroa digitalizatzea.
- Estatuko eta nazioarteko talde eta plataformekin lankidetzan aritzea.
- Erakundeentzako prestakuntza ibilbideak garatzea.
- Boluntariotzaren sentsibilizazioa eta sustapena egiteko jardunbideak denboran iraunaraztea.
- Sareko lan koordinatu eta eraginkorraren oinarriak ezartzea.
- Marketina eta komunikazioa txertatzea erakundeen eguneroko jardunean.
- Eragile gehiago inplikatzea (enpresak, sindikatuak, etab.) boluntariotzan.
- Onura ofizialen bidetik etor daitezkeen aukerak aztertzea (kredituak konbalidatzea unibertsitateetan, gazte karneta, etab.).

# NAFARROA OROTAN LAGUN

NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA

3

## 3.1 NAFARROA OROTAN LAGUN ESTRATEGIAREN AURKEZPENA

2018tik aurrera, **NAVARRA+VOLUNTARIA / NAFARROA, OROTAN LAGUN** da Nafarroako Gobernuak boluntariotzaren garapena eta finkapena sustatzeko duen Estrategia identifikatzen duen marka, modu aktiboan laguntzeko boluntariotza ezagutaraztén, aitzat hartzen, indartzen eta sustatzen.

Esparru estrategiko horrek eraginkortasunez eta iraunkortasunez denboran bermatu nahi du boluntariotzaren babesean eta sustapenean Nafarroako Gobernuak duen erantzukizuna, apustu egonkor, sendo eta koherente batetik, horren bultzadan inplikatuta dauden pertsona eta gizarte eragile guztien arteko egituraketa eta lankidetza hobetzeko.

Nafarroako Boluntariotzari buruzko 1998ko Legeak jasotzen duenez, boluntario ekintzak islatzen du guztion onura lortzeko ahalegin kolektibo, solidario eta altruista, herritarren parte-hartze aktibo, libre, solidario, altruista era arduratsuaren bitartez. Boluntariotza balio handiko tresna da demokrazian sakontzeko, herritarren parte-hartze antolatuak berez daramatzan balio inplizituengatik eta interes orokorrarekiko konpromisoa irudikatzen duelako, justizia, gizartearen kohesioa eta gizarte inklusiboagoa, harremanez oparoa eta parte-hartzailea bultzatuz.

Espiritu horretatik, administrazio publikoen ardura da  Nafarroako Foru Komunitatearen gizarte garapenean herritarrek duten inplikazioa aitortzea eta sustatzea, gizartean parte hartzeko antolatutako forma guztiak sustatuz, guztion onura eta gizarte berdinzaleago, solidarioago eta parte-hartzaileago baten alde lan egiten dutenean.

**NAFARROAN BOLUNTARIOTZA SUSTATZEKO POLITIKA INTEGRAL, EGONKOR, KOHERENTE ETA ERAGINKOR BAT FINKATZEA, ZUZEN INPLIKATUTAKO ERAGILE GUZTIEKIN EGITURATUA.**



## 3.2 MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

NAFARROA, OROTAN LAGUN da Gobernuaren Estrategia boluntariotzaren sustapen integrala egiteko; hona hemen haren Misioa, Ikuspegia eta Balioak:

### MISIOA

**Nafarroan boluntariotza sustatzeko politika integral egonkor, koherente eta eraginkor bat sendotzea, departamentu eta toki erakunde guztien baterako gobernu ekintza koordinatu baten bidez. Politika hori zuzenean inplikatutako gizarte eragile guztiekin eratuko da, eta gizarte antolatu, parte-hartzaile eta solidario bat bultzatzeko behar diren laguntzak eskainiko ditu.**

#### HELBURU OROKORRAK

- Nafar gizartea boluntariotzaren zentzuaz kontzientziatzea, herritarren elkartasunezko partaidetza aktiboaren balioak eta garrantzia sustatuz.
- Boluntariotzako entitateen garapenari eta hazkundeari mesede egitea, boluntarioak artatu eta kudeatzeko prozesuen hobekuntza indartuz.
- Eragile esku-hartzaile guztien arteko koordinazio eraginkor eta iraunkorrerako sistema bat garatzea, bermatuko duena Nafarroan modu egonkor, sendo eta koherente batean bultzatzen dela boluntariotza.
- Hobeki ezagutaraztea zein den boluntariotzak Nafarroan duen egoera eta zein diren arlo horretan diharduten eragileen beharrak.





## IKUSPEGIA

Nafarroako gizartearen ezaugarria da demokrazia parte-hartzailearen eta gobernantzaren eredu aurreratu bat izatea, administrazio publikoek lideratzen dutena, baina lankidetzarako eredu publiko-sozial esplizitu batekin, herritarren parte-hartzea eta gizarte zibil antolatuaren adierazpen desberdinen egituraketa aintzat hartu, babestu eta sustatzen dituena.

## BALIOAK

Nafarroako boluntariotzaren Foru Legeak ezartzen dituen boluntariotzaren oinarrizko printzipioen arabera, NAFARROA, OROTAN LAGUN estrategiaren helburua da bizikidetza sustatzen laguntzea gizarte demokratiko, ireki, moderno eta parte-hartzaile batean, ondoko balio hauetan oinarrituta:

•Konpromiso pertsonala eta librea.

•Doakotasuna.

•Parte-hartzea eta elkarte bizitza.

•Elkartasuna

•Guztien onura.

•Ardura pertsonala eta kolektiboa.

•Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

•Kalitatea eta etengabeko ebaluazioa.

•Botere publikoekiko autonomia.



# 3.3 ILDO ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

| A- SENTSIBILIZATZEA |
|---|
| Nafar gizartea boluntariotzaren zentzuaz kontzientziatzea, herritarren elkartasunezko partaidetza aktiboaren balioak eta garrantzia sustatuz. |
| A.1- Boluntariotzaren kulturari zentzua ematen dioten osagai gakoak zabaltzea. |
| A.2- Nafarroako boluntariotzak gizarteari egiten dion ekarpena aintzat hartzea. |
| A.3- Eskura dauden boluntariotza programak ezagutaraztea. |
| A.4- Boluntariotzan pertsona berriak sartzea sustatzea eta erraztea, boluntariotzako erakundeekin eskuz esku. |
| A.5- Sentsibilizazio ekintzak zuzentzea kolektibo zehatzentzat: gazteak eta umeak (ikastetxeak eta unibertsitateak), familiak eta adineko pertsonak. |
| A.6- Enpresaren munduarekiko eta aurrera eramaten ari diren Enpresen Gizarte Erantzukizuneko (EGE) estrategiekiko sinergiak sortzea (InnovaRSE programa). |



| B- INDARTZEA |
| --- |
| Boluntariotzako entitateen garapenari eta hazkundeari mesede egitea, boluntarioak artatu eta kudeatzeko prozesuen hobekuntza indartuz. |
| B.1- Nafarroako boluntariotzaren egungo kontzeptua eta eredua zehazten dituzten osagai gakoak ezartzea eta adostea. |
| B.2- Boluntariotza erakundeek boluntarioen kudeaketa eta dinamizazioaren arloan dituzten beharrak identifikatzea eta haiei erantzutea. |
| B.3- Boluntarioen eta haiei laguntzeko ardura dutenen prestakuntza sustatzea, askotariko ikastaroak, dinamikoak eta irekiak, eskainiz, eta entitateen eta arloen arteko harremana erraztuz. |
| B.4- Administrazio publikoak boluntariotzaren sustapenean duen inplikazioa garatzea, erantzukizunak argituz maila eta departamentu desberdinetan, eta gizarte erakundeek sustatzen dituzten boluntariotza programen iraunkortasuna zainduz. |
| B.5- Boluntariotza arloko Jardunbide Egokiak ezagutaraztea, eta interes komuneko gaien gaineko gogoeta eta lana egiteko topaketak sustatzea. |
| B.6- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea boluntario ekintzan, sexuan oinarritutako diskriminazio era guztiak, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, ezabatzen lagunduz. |
| B.7- Boluntariotzaren dibertsitatea modu aktiboan bultzatzea, profil eta kolektibo desberdinak atxikiz, kalteberatasun egoeran dauden pertsonak barne. |



| C- KOORDINATZEA |
| --- |
| Eragile inplikatu guztien arteko koordinazio eraginkor eta iraunkorrerako sistema bat garatzea, boluntariotzaren sustapen egonkor, sendo eta koherentea bermatuko duena. |
| C.1- Urte batzuetarako ekintza plana, Nafarroako boluntariotzaren garapenean aurrera egiteko, Boluntariotzaren Departamentu arteko Batzordeak sustatuta. |
| C.2- Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluak Nafarroako boluntario ekintzaren sustapenean eta jarraipenean duen papera eta ordezkaritza finkatzea. |
| C.3- Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Puntua eta haren web-orria finkatzea, Departamentu arteko Batzordearen, Boluntariotzaren Mahai Teknikoaren, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluaren eta Foru Komunitatearen Hirugarren Sektorearen beraren arteko lan koordinatua eginez. |
| C.4- Sareko lana sustatzea, boluntariotzaren erakundeen eta inplikatutako gainerako eragileen artean, bigarren Planaren inguruan, eragile bakoitzari ekintza edo prozesu bakoitzean dagokion eginkizuna zehaztu eta argitzeko. |
| C.5- Nafarroako Gobernuaren Boluntariotza Politika argitzeko lanean aurrera egitea, gobernantza, herritarren parte-hartzea, hirugarren sektorea, gizarte politika eta hainbat arloren aldeko apustuarekin bat eginez. |





| D- INFORMATZEA |
| --- |
| Boluntariotzak Nafarroan bizi duen egoera eta arlo horretan diharduten eragileen beharrak hobeki ezagutzea. |
| D.1- Nafarroako boluntariotzaren tamaina, hedapena eta ezaugarri nagusiak ezagutzea. |
| D.2- Hurbilpen kualitatibo bat egitea Nafarroako boluntariotzara, jarduteko esparruak eta eragile nagusiek atzemandako joerak eta beharrak aintzat hartuta: pertsona boluntarioak, erakundeetako boluntariotzaren arduradunak, hirugarren sektoreko sareak, foru departamentuak, etab. |
| D.3- 'Nafarroako boluntariotza elkarteen mapa' egitea, Nafarroako Boluntarioen Erroldaren zehaztapena eta irismena hobetzen lagunduko duelako, eta beste erregistro batzuekiko sinergiak baloratzea: Elkarteen erregistroa, herritarren parte-hartzeko entitateen erregistroa, etab. |
| D.4- Boluntariotzaren egoera aztertzea foru lurraldearen dibertsitatea kontuan hartuta. |
| D.5- NAFARROA OROTAN LAGUN web-plataforma modu progresiboan garatzea, eduki, erabilera eta aplikazio berriekin, eta horrekin batera, informazio sistema bat, informazioen hedapen proaktiboa bermatuko duena (banaketa zerrendak interes taldeen arabera, buletinak, etab.) |



# 3.4 SUSTAPEN ETA GOBERNANTZA ESPARRUA

Estrategia hau eta bere Ekintza Planak sustatzeko funtsezkotzat jo zen lantalde tekniko bat eratzea, **BOLUNTARIOTZAREN DEPARTAMENTU ARTEKO BATZORDEA**ren eginkizunen inplementazioa bermatu eta, aldi berean, **NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN KONTSEI-LUA** dinamizatuko dituena.

Talde hori 2019an sortu zen, **MAHAI TEKNIKOA** izenarekin, eta haren ardura zen, gainera, **Boluntariotzaren informazio eta koordinazio puntua** gobernatzea eta orientatzea, zenbait ekintza inplementatu eta egiten direla bermatzeko ardura duen zentroa den aldetik:



## NAFARROA, OROTAN LAGUN sustatzeko ardura duten eragileak

**NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN KONTSEILUA** parte-hartzeko organoa da, aholku emailea, boluntariotzan inplikatutako gizarte eragileak elkartzeko eta aholkularitza eta kontsulta egitekoa. Besteak beste, haren funtzioa da "boluntariotza sustatzeko neurrien inguruko proposamenak aztertzea eta jasotzea".

**BOLUNTARIOTZAREN DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEA** boluntariotzaren arloan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentuen artean koordinazio teknikoa egiteko organoa da. Haren funtzio nagusietako bat da boluntariotza sustatzeko politika integral bat ezartzea, departamentuen arteko koordinazioa bermatuz horretarako.

**MAHAI TEKNIKOA:** Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordearen menpeko batzorde bat da, haren funtzioei eraginkortasuna emateko ardura duena. Bere lana betetzeko, Boluntariotzaren informazio eta koordinazio puntuaren eta beste hainbeste baliabideren laguntza du Mahai Teknikoak.

**BOLUNTARIOTZAREN INFORMAZIO ETA KOORDINAZIO GUNEA:** Boluntariotza Planaren ekintzen antolamenduaren zerbitzura dagoen baliabidea da, haren jarduketa zenbait kudeatzen dituena. Aldi berean, erreferentziazko espazio bat izan nahi du, inplikatutako eragile desberdinen arteko koordinazioa eta harremana erraztuko dituena.

Ildo horretatik, haren zerbitzu nagusietako bat **Nafarroa Orotan Lagun** web plataforma da; komunikazioan jartzen ditu boluntariotza erakundeak, elkarteak, osasun zentroak, toki entitateak... boluntario izan nahi duten pertsonekin.



# II. EKINTZA PLANA 2022-2023

4

NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA



## 4.1 AURKEZPENA

Administrazio Publikoaren ardura, eragileen ekarpenak eta I. Ekintza Plana abiarazi ondoren hartutako esperientzia kontuan hartuta proposatu da **Nafarroako Boluntariotzaren II. Plana 2022-2023** hau.

**Plan** honen helburu nagusia da **ekintzara bideratutako** lehentasun batzuk ezartzea hurrengo bi urteetarako, **emaitza efikazak, efizienteak eta ukigarriak** lortzeko. Ekintza planak lagundu behar du **boluntario ekintzaren alderdi azpimarragarrienak indartzen eta balioan jartzen.**

Horretarako, boluntariotzaren ekosistema osotik (gizartea, gizarte erakundeak, Nafarroako Gobernua eta eragile inplikatuak) **egin diren ekarpen guztiak** integratu dira, eta horiekin batera, **COVID-19 errealitateak** ekarritako ikasbideak ere jaso dira.

**Nafarroako Gobernuak erakundeekiko lankidetzan** sustatuko dituen lehentasunen eta jarduketen proposamen hau parte-hartzailea eta gardena da, ekarpen berriak jasotzeko irekia, eta orobat, bidean sor daitezkeen bestelako aukerak baliatzeko ere.

## 4.2 LEHENTASUNEZKO HELBURUAK

- Boluntariotzaren Nafarroako Kontseilua berriro aktibatzea eta sinergiak eratzea sortzeko bidean den Herritarren Parte-hartze Kontseiluarekin.
- Mahai Teknikoa eta Boluntariotzaren Departamentu arteko Kontseiluaren rola finkatzea.
- Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunea finkatzea eta indartzea.
- Nafarroaorotanlagun web-plataforma indartzea eta modu progresiboan garatzea, erabilera gehiagorekin.
- Nafarroan dauden boluntariotza joera nagusiak identifikatzea.
- Boluntariotzan dauden genero arrakalen analisian sakontzea.
- Zeharkakotasunez integratzea plan guztian emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa.
- Boluntariotzak hainbat eremutan bizi duen egoeraren analisi kualitatiboa egitea.
- Boluntariotza sustatzeko urteko kanpaina orokorren bat aurrera eramatea.
- Gazteengana iristeko hezkuntza/unibertsitateen esparruan sentsibilizazio pro-



grama bat elkarlanean aurrera eramateko aukerak aztertzea.

- Boluntariotzaren kudeaketarako prestakuntza ekimenak antolatzea.
- Boluntariotza erakundeen eta pertsona boluntarioen arteko topaketa/tailerrak sustatzea. (jardunbide egokiak partekatzea, komunikazioa, boluntariotza eta parte-hartzeko forma berriak, baliabideak lortzea, berdintasuna, komunikazioa...)
- Jardunbide egokiak partekatzeko jardunaldiren bat antolatzea boluntariotza dinamizatzeko ardura duten pertsonen artean.
- Enpresen Gizarte Erantzukizuneko (EGE) enpresekiko lankidetzarako aukerak aztertzea, esaterako boluntariotza korporatiboari buruzko jardunaldi bat eginez, etab.
- Gizarte erakundeei boluntariotzari buruzko aholkularitza zerbitzuak emateko eta boluntariotza planak aurrera eramateko laguntza eskaintzeko gaitasuna indartzea.
- Nafarroako hirugarren sektorearen garapen eta egituraketaren egoera ezagutzea, hala nola hainbat arlotan boluntariotzak duen pisua ere.
- Nafarroako Foru Komunitatean boluntariotza erakundeen sare bat antolatzeko beharra eta aukera aztertzea.

## 4.3 JOMUGAK 2023

**NAFARROA, OROTAN LAGUN** ekimenak planteatzen dituen helburu estrategikoak eta aurreko apartatuan jasotako helburu espezifikoak kontuan hartuta, ondoren azaltzen dira 2023ko abendurako ildo estrategiko bakoitzean lortu nahi diren jomugak. Jomuga horiek iritsitako mugarrien erara azaldu dira, eta oinarria ezarri nahi dute, hurrengo bi urteetan egin beharreko jarduketak eta urratsak identifikatzeko, eta orobat Ekintza Plana 2023ko abenduaren amaieran ebaluatu ahal izateko.





## SENTSIBILIZATZEA

Nafarroan boluntariotzaren inguruko sentsibilizazio kanpaina partekatu bat urtero egitea finkatu da, eta abenduaren 5a (boluntariotzaren nazioarteko eguna) eta boluntariotzaren balioak ezagutarazteko eta aitortzeko egunaren ospakizuna ere bai.

Eskura dauden boluntariotza programen ezagutza handiagoa lortu da, eta boluntariotzarekin lotutako edukiak gehiago ageri dira komunikabideetan, Nafarroako baliabide eta ekipamendu sozio-komunitarioetan, erakundeetan eta Gobernuaren web-orrietan eta sare sozialetan.

Lankidetza programa bat (hainbat gizarte erakunderen artekoa) aurrera eramateko oinarriak jarri dira, hezkuntza/unibertsitate esparruan boluntariotzaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko, ildo horretan dituzten ekimenak aprobetxatuz.

## INDARTZEA

Erakundeen, boluntarioen eta teknikarien arteko hainbat lankidetza prozesuren emaitzak biltzen dituzten dokumentuetan jasota daude, alde batetik, Nafarroako boluntariotzaren nortasun ezaugarriak, eta bestetik, boluntariotza erakundeen erronka eta behar nagusiak.

Boluntariotzari laguntza emateko hainbat zerbitzu finkatzen hasi dira, neurri batean, eta hainbat arlotan, boluntariotza erakundeek dituzten beharrak asetzen laguntzen dutenak: boluntariotzaren kudeaketa/dinamizazioa, elkarteen kudeaketa, prestakuntza, sareko lana, boluntarioak lortzea, EBko programak, etab.

Boluntariotza ukitzen duten dirulaguntzen inguruko informazioa eta irizpideak trukatu dira administrazio eta departamentu desberdinen artean.

Aurrerapenak izan dira genero ikuspegia bigarren planetik garatutako neurri guztietan txertatzeko bidean: kanpainak, azterlanak, ebaluazioak, prestakuntza, jardunbide onak, Plana bultzatzen eta jarraipena egiten duten organoen osaera berdinzalea...



| KOORDINATZEA |
| --- |
| Urte batzuetarako ekintza planak, Nafarroako Kontseiluak eta Departamentuarteko Batzordeak bizirik diraute eta proaktiboak dira, elkarrekin lerrokatuta daude, lan dinamika egonkor batekin, NAFARROA OROTAN LAGUN estrategiari bultzada eta jarraipena emateko lagungarria dena. |
| Herritarren Parte-hartzeko Kontseiluarekiko koordinazioa eta sinergia sortu dira. |
| Boluntariotzaren informazio eta koordinazio gunea finkatu eta garatu da; Boluntariotzaren inguruan Gobernuak aurrera eramaten duen jarduketa bideratzen du, eta hainbat zerbitzu eskaintzeko erreferentziazko esparrua da, bermatu egiten baitu Nafarroako boluntarioekiko eta elkarte sareekiko lotura eta elkarlana. |
| Boluntariotza Planari atxikitako eragile sare zabala dago, planteatu diren ekintzetan parte hartu dutenak, proposamen eta balorazioak helarazi dituztenak, eta prest daudenak 2022-2023 Planaren ebaluazioan eta hurrengo Plana prestatzeko prozesuan parte hartzeko. |
| Hobeki ezagutzen da Nafarroako hirugarren sektorearen egituraketa, boluntariotzak han jokatzen duen rola, eta hasierako jarrera bat hartu da, Nafarroako Foru Komunitatean lantalde bat edo Boluntariotzaren sare bat eratzeko aukerari dagokionez. |
| Nafarroako Gobernutik aurkeztu da haren Boluntariotza politika aurkezten duen dokumentua. |
| Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetza esparrua zehaztu da, modu progresiboan hedatzeko NAFARROA OROTAN LAGUN estrategia, bai lurralde osoan, bai Iruñeko Udalak boluntariotzaren inguruan dituen zerbitzu eta baliabideekin ere. |

# INFORMATZEA

| |
|---|
| **Nafarroako boluntariotzari buruzko bigarren azterlan bat egin da** 2023ko bigarren seihilekoan, joera nagusiak identifikatzeko aukera ematen duena, 2019ko lehenengo azterlanarekin alderatuta. |
| **NAFARROA OROTAN LAGUN web plataforma** finkatu egin da, boluntariotza programen eta erakundeen erakustoki gero eta zabalagoa eta errealagoa eskaintzen duela, jarduketa eremuaren arabera, udalerri-lurraldeen arabera eta beharren nahiz profilen arabera... antolatuta. |
| Badira banaketa zerrenda elektroniko zabalak, eragile motaren arabera bereiziak (gizarte erakundeak, AAPP, baliabide sozio-komunitarioak, enpresak-boluntariotza korporatiboa, etab.) boluntariotzaren inguruko informazio interesgarriak modu arin eta errazean zabaltzeko aukera ematen baitute (berriak, argitalpenak, ikastaro eta jardunaldiak eskaintzea...). |
| **Boluntarioen errolda** mantentzea egokia den edo, beharbada, Nafarroako beste erregistro batzuekin lotu/integratzeko aukera berraztertu da, betiere bikoiztasunak saihestuz: elkarteen erregistroa, herritarren parte-hartzeko entitateen errolda, etab. |



## 4.4 ERAGILE GAKOAK

Diagnostikoa egiteko egindako azterketa eta analisiak egin ondoren, boluntariotzarekin elkarrekintzan aritzen duten interes taldeak aletzen dira. Pertsona multzoak, taldeak edo/eta erakundeak dira, Boluntariotzaren II. Ekintza Plan honen sorreran eta garapenean parte hartzen ari direnak.

Ekosistema horri esker, haien parte-hartzeak eta harremanak boluntariotza indartuko du, ekintzak eramanen ditu aurrera, eta sor daitezkeen behar eta errealitateen arabera garatuko da.

### GIZARTEA

- Boluntarioak
- Onuradunak
- Boluntariotza antolatzen duten pertsonak
- Sentsibilitatea duten baina programetan parte hartzen ez duten pertsonak (potentzialak)
- Boluntariotzan interesik ez duten pertsonak (potentzialak)

### ERAKUNDE ETA ENTITATEAK

- Nafarroako Gobernua
- Boluntariotza erakundeak
- Boluntariotza programa duten erakundeak

### ERAGILE INPLIKATUAK

- Hirugarren Sektoreko elkarteak eta sareak
- Osasun etxeak
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.
- Auzoko unitateak
- Liburutegiak
- Zentro zibikoak
- Gazteen zentroak
- Zaharren klubak
- Udalak
- Babes zibila
- Ikastetxeak eta unibertsitatea
- Bestelakoak



# 4.5 EKINTZEN PROPOSAMENA

Egindako diagnostikoan eta markatutako helburuetan oinarrituta, ondoko ekintza hauek proposatzen dira (oraingoz modu generikoan formulatuta) 2022-2023 aldirako.

| SENTSIBILIZATZEA |
| --- |
| **A.1- Boluntariotzaren nazioarteko egunaren urteko ospakizuna egitea, boluntarioen eta erakundeen arteko topaketak errazteko.** |
| **A.2-** Urtero egitea **sentsibilizazio kanpaina** bat boluntariotzaren inguruan, erakunde/esparru desberdinen arteko lankidetzan egina eta kolektibo zehatzetara zuzendua: pertsona jubilatuak, enpresak, ikastetxeak, familiak...). |
| **A.3- Nafarroaorotanlagun plataformaren etengabeko posizionamenduaren estrategia bultzatzea:** sare sozialak, aurkezpen ekitaldiak, zabaltzeko triptikoa, kanpaina birala, etab. |
| **A.4- Hezkuntzan/unibertsitatean sentsibilizazioa lantzeko programaren** proposamena prestatzea (elkarlanean, hainbat erakunderen artean, ildo horretan ari diren ekimenak aprobetxatuz). |
| **A.5- Boluntariotza korporatiboaren programetan parte-hartzea** espresuki sustatzea, EGE enpresa sarearen laguntzaz. |
| **A.6- Boluntariotzaren txostena prestatzea, 2030 Agendako aldaketa eragile aktiboa den aldetik (inkesta).** |
| **A.7- Kanpaina birala, boluntariotzak 2030 GJHei egiten dien ekarpen handia balioan jartzeko eta** helburu horien garrantziaz kontzientziatzeko. |
| **A.8- Boluntario lana egitean lortutako gaitasunen aitortza formala** ahalbidetzeko proposamena. |



| INDARTZEA |
| --- |
| **B.1- "Boluntariotzaren Gida"** argitaratzea, elkarlanean egina, Nafarroako boluntariotzaren definizioak eta nortasun ezaugarriak jasoko dituena. |
| **B.2- Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Guneak eskaintzen dituen laguntza zerbitzuak berriro definitzea.** |
| **B.3- Laguntza zerbitzu presentzialak** eskaintzea, batez ere boluntariotzaren kudeaketa eta dinamizaziorako **aholkularitza** indartuz, komunikazioa... (Baloratu LANKIDETZA ZENTRO ESPAZIOA-Iruñeko Udalarekiko elkarlana). |
| **B.4- Urteko prestakuntza eskaintza (presentziala eta telematikoa)**, lehendik daudenen osagarria, **urtean lau ikastaro praktiko antolatuz** arlo hauetan: boluntariotzaren dinamizazioa, elkarteen kudeaketa, sareko lana, gizarte eta genero berdintasuna, boluntarioak atxikitzea, irudiak eta komunikazioa, baliabideak eskuratzea, EB programak, etab. Eskaintza horrek kulturarteko ikuspegia txertatuko du, eta informazioa itzuli beharko du, Nafarroan bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen hizkuntzetara. |
| **B.5- Topaketak eta lan jardunaldi teknikoak** (sei hilean behin), formatu, metodologia, profil... Desberdinekin, jardunbide egokiak partekatzeko hainbat alderdiri buruz: prestakuntza, boluntarioak lortzea eta haien parte-hartzea erakundeetan, genero berdintasuna, emakumeen eta gizonen ardura berdintasuna zaintzaren arloan (NABIk bultzatutako Zaintzaren aldeko Foru Ituna), jasangarritasuna eta ingurumen arloko sentsibilizazioa, bazterketa, etab. |
| **B.6- Foru departamentu desberdinetatik eman eta boluntariotza ukitzen duten dirulaguntzen inguruko informazio eta irizpide guztiak aztertu** eta jasoko dituen txostena egitea. |
| **B.7- Boluntariotza korporatiboari buruzko jardunaldia,** arlo horretako jardunbide egokiak identifikatzeko, enpresek inplementatutako Gizarte Erantzukizuneko estrategien esparruan, eta hirugarren sektorearekiko lankidetzarako bestelako aukerak aztertzea. |
| **B.8- Boluntariotzari buruzko txosten espezifikoa genero ikuspegitik**, dauden arrakala eta desberdintasun nagusiak identifikatuz. |

| KOORDINATZEA |
| --- |
| **C.1- 2022-2023 Ekintza Plana inplementatzea**, eragile desberdinen inplikazio progresiboarekin aurreikusitako ekintzetan. |
| **C.2- Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunearen zerbitzuen katalogoa** eta Nafarroako boluntarioekin nahiz elkarte sareekin sareko lana egiteko duen estrategia azaltzea. |
| **C.3- Analisia eta sintesi txostena foru departamentu guztien aldetik, boluntariotzarekin une honetan duten lotura azalduz** (programak, lankidetzak, dirulaguntzak, laguntzak, zerrendak eta datu baseak...). |
| C.4- Nafarroako Gobernuaren hasierako dokumentu bat editatzea, **Boluntariotzaren inguruan duen politika** azalduz. |
| **C.5- Gobernuaren eta Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetza akordioa** NAFARROA OROTAN LAGUN lurralde osora zabaltzeko modu progresiboan. |
| **C.6- Lankidetza akordioa Iruñeko Udalarekin:** Adb.: sinergiak Lankidetza Zentro Espazioarekin, beste udal baliabideak, etab. |
| **C.7- Prestakuntza ekintza espezifikoa berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren inguruan**, Planari bultzada emateko ardura duten eragileentzat. |
| **C.8- Plana bultzatzeko ardura duten erakundeen lan dinamika eta funtzioak finkatzea:**<br><br>Urtean **bi** aldiz biltzea **NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN KONTSEILUA**<br><br>Urtean **3** aldiz biltzea **BOLUNTARIOTZAREN DEPARTAMENTU ARTEKO BATZORDEA**<br><br>Urtean **10** aldiz biltzea **BOLUNTARIOTZAREN MAHAI TEKNIKOA** |

| INFORMATZEA |
|---|
| **D.1- NAFARROA OROTAN LAGUN web plataforma** sustatzea eta garatzea, boluntariotzaren erakunde eta programen ikuspegi orokor gero eta zabalago bat eskainiz. |
| **D.2- Banaketa elektronikoaren zerrendak abiaraztea,** eragile motaren arabera bereiziak (gizarte erakundeak, AAPP, baliabide sozio-komunitarioak, etab.) aldian behi zabaltzeko, arintasunez eta eraginkortasunez, boluntariotzaren inguruko informazio interesgarria (II. Planari buruzko informazioa, albisteak, argitalpenak, ikastaroak eta jardunaldiak...). |
| **D.3- Boluntariotzaren erroldaren** inguruko proposamen bat prestatzea (egokia den baloratuz, beste erregistro batuekiko teilakatzea, etab.). |
| **D.4- Nafarroako elkarteen errealitatearen eta herritarren parte hartzearen mapa orokor bat egitea** (erakundeak identifikatzea eta alde-aldeko kopurua zehaztea, eremuen arabera, partaidetza ekinenen arabera, programa komunitarioen arabera...). |
| **D.5- Nafarroako boluntariotzari buruzko bigarren azterlana** (2023ko azken hiruhilekoan egitea). |



# 4.6 KRONOGRAMA

NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA ✚ VOLUNTARIA

## BOLUNTARIOTZAREN II. PLANA 2022-2023

| Proposaturiko ekintzak | 2022 | | | | 2023 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| **A.1**- Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren urteko ospakizuna | | | | ■ 1 | | | | ■ 1 |
| **A.2**- Urtean sentsibilizazio kanpaina bat egitea boluntariotzaren inguruan. | | | ■ | | | | ■ | |
| **A.3**- **Nafarroaorotanlagun** web-plataformaren etengabeko posizionamendu estrategia. | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| **A.4**- 'Sentsibilizazio programa hezkuntza/unibertsitateen ingurunean" egiteko proposamena prestatzea. | | | | | ■ | ■ | | |
| **A.5**- Boluntariotza korporatiboaren programetan parte-hartzea espresuki sustatzea, InnovaRSE enpresa sarearen laguntzaz. | | | ■ | | | ■ | | |
| **A.6**- Boluntariotzaren txostena prestatzea, 2030 Agendako aldaketa eragile aktiboa den aldetik. | | | ■ | | | | | |
| **A.7**- Kanpaina birala boluntariotzak 2030 GJHei egiten dien ekarpenari buruz. | | | | ■ | | | | |
| **A.8**- boluntariotzarekin lortzen diren gaitasunen aitortza formalaren proposamena. | | ■ | | | | | | |
| **B.1**- "Nafarroako boluntariotzaren gida" argitaratzea. | | | | | ■ | | | |
| **B.2**- Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Guneak eskaintzen dituen laguntza zerbitzuak berriro definitzea. | ■ | | | | | | | |
| **B.3**- Laguntza zerbitzu presentzialak abiaraztea: boluntariotza kudeatzeko eta dinamizatzeko aholkularitza, komunikazioa... | | | | | ■ | ■ | ■ | ■ |
| **B.4**- Urteko prestakuntzaren eskaintza (presentziala eta telematikoa): 4 ikastaro praktiko | ■ 1 | ■ 1 | ■ 1 | ■ 1 | ■ 1 | ■ 1 | ■ 1 | ■ 1 |
| **B.5**- topaketak eta lan jardunaldi teknikoak (sei hilean behin) jardunbide egokiak partekatzeko. | | ■ 1 | | ■ 1 | | ■ 1 | | ■ 1 |
| **B.6**- Boluntariotza ukitzen duten dirulaguntzei buruzko informazioa eta irizpideak jaso eta ordenatuko duen txostena. | | ■ | | | | | | |
| **B.7**- Boluntariotza korporatiboaren jardunaldia: jardunbide egokien identifikazioa Enpresen Gizarte Erantzukizunaren esparruan... | | ■ | | | | | | |
| **B.8**- Boluntariotzari buruzko txosten espezifikoa genero ikuspegitik, dauden arrakala eta desberdintasun nagusiak identifikatuz. | | | ■ | | | | | |
| **C.1**- 2022-2023 Ekintza Plana inplementatzea, eragile desberdinen inplikazio progresiboarekin. | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| **C.2**- Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunearen zerbitzuen katalogoa eta sareko lana egiteko duen estrategia azaltzea. | | ■ | | | | | | |
| **C.3**- Analisia eta sintesi txostena foru departamentu guztien aldetik, boluntariotzarekin une honetan duten lotura azalduz | | | ■ | ■ | | | | |
| **C.4**- Nafarroako Gobernuaren dokumentua editatzea, **Boluntariotzaren inguruan duen politika** azalduz. | | | | | | | ■ | |
| **C.5**- Gobernuaren eta Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetza akordioa NAFARROA OROTAN LAGUN lurralde osora zabaltzeko | | | | | ■ | | | |
| **C.6**- Iruñeko Udalarekiko lankidetza hitzarmena (udal zerbitzu/baliabideekiko sinergiak). | | | | | ■ | | | |
| **C.7**- Prestakuntza ekintza berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren inguruan, Planaren ardura duten eragileentzat. | | | | ■ | | | | |
| **C.8**- Plana bultzatzeko ardura duten erakundeen lan dinamika eta funtzioak finkatzea: | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| Urtean bi aldiz biltzea NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN KONTSEILUA | | 1 | | 1 | | 1 | | 1 |
| Urtean 3 aldiz biltzea BOLUNTARIOTZAREN DEPARTAMENTU ARTEKO BATZORDEA | 1 | 1 | | 1 | 1 | 1 | | 1 |
| Urtean 10 aldiz biltzea BOLUNTARIOTZAREN MAHAI TEKNIKOA. | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 | 2 | 2 | 3 |
| **D.1**- NAFARROA OROTAN LAGUN web-plataforma sustatzea eta garatzea. | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| **D.2**- Banaketa elektronikoko zerrendak abiaraztea, eragile motaren arabera bereiziak, informazio interesgarriak zabaltzeko. | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| **D.3**- Boluntariotzaren erroldaren inguruko proposamena prestatzea (egokia den baloratuz, beste erregistro batuekiko teilakatzea, etab.). | | ■ | | | | | | |
| **D.4**- Nafarroako elkarteen eta herritarren parte-hartzearen mapa globala egitea. | | | | | ■ | ■ | | |
| **D.5**- Nafarroako boluntariotzaren bigarren azterlana. | | | | | | | | ■ |

## 4.7 PLANAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Planaren ebaluazioa eta jarraipena funtsezko tresnak dira prestatutako planetik benetako inplementaziora igarotzeko, barne direla ezarritako konpromisoei dagozkien jarduketen inplementazioaren etengabeko jarraipena eta monitorizazioa, baita planaren azken ebaluazioa eta balantze globala ere, planaren indarraldiaren amaieran.

Planaren jarraipenean Nafarroako boluntariotzaren ekosistema osatzen duten eragile guztiek hartuko dute parte.

Ebaluazioari dagokionez, bi ebaluazio eginen dira:

- Tarteko ebaluazio bat (2022ko abendua)
- Amaierako ebaluazioa (2023ko abendua)

Ebaluazio horiek modu argian islatu beharko dute parte-hartzea.

Plana inplementatzen 2022ko urtarrilean hasi aurretik, haren jarraipena eta proposatutako jomuga bakoitzeko aurrerapena ezagutzeko bidea emanen duten adierazleen koadroa zehaztuko da.

### PARTE HARTZEA

Planaren izaera dela eta, bereziki zainduko da plana ezartzeko eta ebaluatzeko fasean ere parte-hartze prozesuak daudela. Horretarako, bi tresna izanen dira:

- Alde batetik, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua, boluntariotzaren arloko kontsulta organo gorena den aldetik, Boluntariotzari buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera.
- Bestetik, herritarren eztabaidarako panela, berariaz prestatuko dena Nafarroako herritarren pertzepzioa eta ekarpenak lortu ahal izateko, plana gauzatzeari eta Nafarroako Gobernu Irekiaren garapenean izandako aurrerapenari dagokienez.

### KONTU EMATEA

Bereziki zainduko da Planaren konpromisoak betetzeari dagokionez egindako aurrerapenari buruzko kontuak ematea.

Tarteko eta amaierako ebaluazioak ezagutarazteaz gain, kontuak emateko gune digital bat erabiliko da, edozein pertsonak edo erakundek une oro izan dezan ezarritako konpromiso bakoitzaren egoera ezagutzeko aukera.

# ERANSKINAK

NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA

5

# 1. ERANSKINA Agente sustatzaileen funtzioak eta osaera

| AGENTEA | NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN KONTSEILUA |
|---|---|
| | ● 2/1998 Foru Legea, Nafarroako Boluntariotzari buruzkoa<br>● 151/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 2koa, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emana, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluko kideak izendatzen dituena. |
| AZALPENA | Parte-hartzeko organoa da, aholku emailea, boluntariotzan inplikatutako gizarte eragileen topaketa, aholkularitza eta kontsulta egitekoa".<br>Besteak beste, haren funtzioa da "boluntariotza sustatzeko neurrien inguruko proposamenak aztertzea eta aurkeztea" |
| EGINKIZUNAK | **20. artikulua. Eginkizunak**<br>a) Nafarroako Administrazio Publikoen xedapen arautzaileen aurreproiektu eta proiektuei buruzko nahitaezko txostena ematea, boluntariotzaren gaineko zuzeneko eragina dutenean. Txosten hori hamabost eguneko epean eman behar da (...).<br>b) Boluntariotzaren oinarrizko beharrak identifikatu eta aztertzea.<br>c) Nafarroako Administrazio Publikoei aholku ematea eta proposamenak eta ekimenak aurkeztea, boluntariotza jarduera gauzatzen den eremu desberdinetan, eta horrez gain, boluntariotza programak diruz laguntzeko jardueran lehentasunezkotzat jo beharreko irizpideak proposatzea.<br>d) Boluntariotza sustatzeko neurriak aztertzea eta horien inguruko proposamenak aurkeztea administrazioei.<br>e) Boluntariotza programen gainean Nafarroako Administrazio Publikoek egiten dituzten jarraipena eta ebaluazioa, eta ematen diren laguntzak, ezagutzea.<br>f) Nafarroako boluntariotzaren egoerari buruzko urteko txostena prestatzea.<br>g) Elkartasunarekin lotura duten parte-hartze organoetan gizarte eragileen presentzia sustatzea.<br>h) Gobernuari proposatzea Kontseiluaren Funtzionamendurako Erregelamendua.<br>i) Haren jardueren urteko memoria onestea. |
| OSAERA | **21. artikulua. Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluak kide hauek izanen ditu:**<br>a) **Kontseiluburua**: Kontseilua atxikita dagoen Departamentuaren titularrak beteko du.<br>b) **Kontseiluburuordea**: Kargu horretarako izendatuko da boluntarioen erakundeetako ordezkariei, boluntarioei eta zentral sindikaletako ordezkariei dagozkien kontseilukideen artean aukeratutako pertsona, beraiek aukeratuta. Kontseiluburua kanpo edo eri badago, edo hari dagokion legezko arrazoiren bat tarteko bada, haren ordezkoa izanen da.<br>c) Zazpi kontseilukide, **boluntariotzarekin zerikusia duten Nafarroako Gobernuko zuzendari nagusiei dagozkienak.**<br>d) **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren hiru teknikari,** boluntariotzaren gaian adituak.<br>e) **Toki entitateen** hiru ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendaturik.<br>f) **Boluntariotza erakundeen** zazpi ordezkari, boluntariotzako erakundeen erregistroan inskribatuta daudenen artetik hautatuak.<br>g) **Hiru boluntario**, kolektiboa ordezkatzen dutenak.<br>h) Foru Komunitatean ordezkaritza handiena duten **sindikatuen** hiru ordezkari. |
| Oharrak | Ez dago legez ezarririk Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua biltzeko gutxieneko maiztasunik. Une honetan, bidezkoa dirudi sei hilean behin biltzea proposatzeak. |

| AGENTEA | BOLUNTARIOTZAREN DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEA |
|---|---|
| | ● 61/2014 FORU AGINDUA, uztailaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordea arautzen duena<br>● 66/2021 FORU DEKRETUA,uztailaren 14koa, 61/2014 Foru Dekretua aldatzen duena (2021-07-27 NAO) |
| **AZALPENA** | Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentuen arteko koordinazio teknikorako organoa da, eta herritarren partaidetzaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari atxikia da. Haren funtzio nagusietako bat da boluntariotza sustatzeko politika bat ezartzea, departamentuen arteko koordinazioa bermatuz horretarako. |
| **EGINKIZUNAK** | **5. artikulua. Eginkizunak.**<br>a) Boluntariotza sustatzeko politika orokor bat finkatzea.<br>b) Departamentuen planifikazioa koordinatu eta sustatzea, jarduketak premia handienak dituzten sektoreetara bideratzeko eta entitate berrien sorrera bultzatzeko.<br>c) Departamentuek ebaluaziorako eta kontrolerako egiten dituzten jarduketen berri izatea.<br>d) Departamentuek ematen dituzten dirulaguntza publikoak boluntariotza entitateekin koordinatzea, jarduketa osagarriak lortzeko eta bikoizketak saihesteko; eta, batez ere, irizpide orokorrak ezartzea boluntariotza sustatzeko.<br>e) Nafarroako boluntariotzari buruzko gida bat prestatu eta zabaltzea.<br>f) Boluntariotza urtero saritzeko ekimena antolatzea, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluaren iritzia oinarri hartuta.<br>g) Indarra duen antolamendu juridikoarekin bat esleitzen edo agintzen zaion beste edozein eginkizun. |
| **OSAERA** | **6. artikulua. Osaera. (66/2021 FORU DEKRETUA)**<br>1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordea kide hauek, edo horiek eskuordetzen dituzten pertsonek osatuko dute:<br>a) Kontseiluburua: Herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren titularra.<br>b) Idazkaria: herritarren partaidetzaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusira atxikitako pertsona bat.<br>c) Batzordekideak: Honako hauen titularrak:<br>- **Babes sozialaren** arloko eskumena duen zuzendaritza nagusia.<br>- **Pertsonen autonomiaren eta garapenaren** arloan eskumena duen erakundearen kudeaketa.<br>- **Kirolaren** arloko eskumena duen erakundearen kudeaketa.<br>- **Gazteriaren** arloko eskumena duen erakundearen kudeaketa.<br>- **Osasunaren** arloan eskumena duen zuzendaritza nagusia.<br>- **Ingurumen** arloko eskumena duen zuzendaritza nagusia.<br>- **Barneko gaien** arloan eskumena duen zuzendaritza nagusia.<br>- **Hezkuntzaren** arloan eskumena duen zuzendaritza nagusia.<br>- **Kulturaren** arloan eskumena duen zuzendaritza nagusia.<br>- **Berdintasunaren** arloko eskumena duen erakundearen kudeaketa.<br>- **Migrazio politiken** arloan eskumena duen zuzendaritza nagusia. |
| **Oharrak** | Batzordearen ohiko Osoko Bilkura sei hilean behin bilduko da, gutxienez. |

| AGENTEA | BOLKUNTARIOTZAREN MAHAI TEKNIKOA |
|---|---|
| **AZALPENA** | Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordearen menpeko batzorde bat da, haren funtzioei eraginkortasuna emateko ardura duena, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluarekin eskuz esku.<br>Bere lana betetzeko, Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunearen eta beste hainbeste baliabideren laguntza du Mahai Teknikoak. |
| **EGINKIZUNAK** | **MAHAI TEKNIKOAREN eginkizunak.**<br>● BOLUNTARIOTZAREN DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEAK ezarritako jarraibideak garatzea.<br>● NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN KONTSEILUA dinamizatzen laguntzea.<br>● DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEAREN ETA NAFARROAKO BOLUNTARIOTZA KONTSEILUAREN arteko etengabeko lerrokatzea bermatzea.<br>● NAFARROA OROTAN LAGUN ESTRATEGIA garatzeko foru departamenduekiko lankidetzan aritzea.<br>● Espresuki bermatzea aldian behin DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEAK, NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN KONTSEILUAREKIN kontrastatu ondoren, onetsiko duen BOLUNTARIOTZAREN EKINTZA PLANAREN inplementazioa.<br>● BOLUNTARIOTZA ERAKUNDEEN ERREGISTROA/ERROLDA orientatzea eta hobetzea.<br>● Boluntariotzan inplikatuta dauden Nafarroako gainerako eragileekiko harremanak sustatzea.<br>● BOLUNTARIOTZAREN INFORMAZIO ETA KOORDINAZIO GUNEA orientatzea, gobernatzea eta kontrolatzea.<br>● Estrategiaren eta haren urte anitzeko planen esparruan aurrera eraman beharreko ekintza, prozesu edo instrumentu batzuen gauzapena eta kalitatea ziurtatzeko beharrezkoak diren laguntza teknikoak eskatzea. |
| **OSAERA** | **Mahai Teknikoaren osaera.**<br>● Herritarren partaidetza eta boluntariotza unitatea atxikita dagoen Zuzendaritza Nagusiko titularra.<br>● Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunea kudeatzen duen erakundeko idazkari/ordezkaria (Nasertic).<br>● Planean inplikazio zuzena duten foru departamentuetako teknikari ordezkariak.<br>o Eskubide Sozialak<br>o Landa Garapena, Ingurumena<br>o Kirola<br>o Gazteria<br>o Berdintasuna<br>o Migrazio Politikak<br>o Kultura<br>o Hezkuntza<br>o Osasuna<br>o Barneko gaiak... |
| **Oharrak** | Mahai Tekniko hau hilean behin biltzea proposatzen da. Gainera, iraunkor hori bilduko da DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEA, eta NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN KONTSEILUA biltzen diren guztietan, aurretik eta ondoren. |

| AGENTEA | BOLUNTZARIOTZAREN INFORMAZIO ETA KOORDINAZIO GUNEA |
|---|---|
| **AZALPENA** | Boluntariotza Planaren ekintzen antolamenduaren zerbitzura dagoen baliabidea da, haren jarduketa zenbait kudeatzen dituena. Aldi berean, erreferentziazko espazio bat izan nahi du, inplikatutako eragile desberdinen arteko koordinazioa eta harremana erraztuko dituena.<br><br>Ildo horretatik, haren zerbitzu nagusietako bat Nafarroa Orotan Lagun web plataforma da; komunikazioan jartzen ditu boluntariotza erakundeak, elkarteak, osasun zentroak, toki entitateak... boluntario izan nahi duten pertsonekin. |
| **EGINKIZUNAK** | **'BARNE' ZERBITZUAK**<br>A. Departamentuarteko Batzordeari eta haren Mahai Teknikoari laguntzea.<br>B. Nafarroako Kooperatiben Kontseiluan parte hartzea.<br>C. Nafarroako Boluntariotzaren Errolda zaintzea.<br>D. Nafarroa Orotan Lagun estrategia zabaltzen laguntzea.<br>E. Nafarroako Foru Gobernuko alor inplikatuekiko harremana sustatzea.<br>F. Plana eta Gunea garatzeko interesgarriak izan daitezkeen estatuko eta nazioarteko boluntariotza ekimen eta joerak ezagutzea, aztertzea eta ezagutaraztea.<br><br>**'KANPO' ZERBITZUAK**<br>A. Boluntariotzari buruzko arreta eta orientazio zerbitzua<br>B. Boluntariotzaren baliabideen katalogoa.<br>C. Informazioa eta dokumentazioa: presentziala, web, sare sozialak.<br>D. Elkarteentzako eta elkartasun ekimen berrientzako oinarrizko laguntza eta aholkua.<br>E. Boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren sentsibilizazioa, hedapena eta sustapena.<br>F. Prestakuntza (presentziala eta 'online').<br>G. Boluntariotzaren bitartekaritza.<br>H. Gizarte erakundeei aholkua eta laguntza espezializatua ematea elkarte bizitzan eta boluntariotzaren kudeaketan.<br>I. Elkarteen mugimendua sustatzeko, laguntzeko edo hobetzeko programak.<br>J. Erakundeak garatzeko eta hobetzeko aholkularitza espezializatua.<br>K. Enpresen eta irabazi asmorik gabeko erakundeen arteko lankidetza sustatzea eta bitartekaritza egitea.<br>L. Etorkizuneko bestelako zerbitzuak. |
| **OSAERA** | Puntu hau 2020ko abuztutik eta enkargu bidez NASERTIC (Nafarroako Zerbitzuak eta Teknologiak) enpresa publikoak kudeatzen du. |

# ANEXO 2 Cuadro síntesis con metas, objetivos y acciones

| A- SENTSIBILIZATZEA | | |
|---|---|---|
| Nafar gizartea boluntariotzaren zentzuaz kontzientziatzea, herritarren elkartasunezko partaidetza aktiboaren balioak eta garrantzia sustatuz | | |
| **Ildo eta helburu orokorrak** | **2023 Jomugak** | **2022-2023 Ekintzak** |
| A.1- Boluntariotzaren kulturari zentzua ematen dioten osagai gakoak zabaltzea.<br>A.2- Nafarroako boluntariotzak gizarteari egiten dion ekarpena aintzat hartzea.<br>A.3- Eskura dauden boluntariotza programak ezagutaraztea.<br>A.4- Boluntariotzan pertsona berriak sartzea sustatzea eta erraztea, boluntariotzako erakundeekin eskuz esku.<br>A.5- Sentsibilizazio ekintzak zuzentzea kolektibo zehatzentzat: gazteak eta umeak (ikastetxeak eta unibertsitateak), familiak eta adineko pertsonak.<br>A.6- Enpresaren munduarekiko eta aurrera eramaten ari diren Enpresen Gizarte Erantzukizuneko (EGE) estrategiekiko sinergiak sortzea (InnovaRSE programa). | • Nafarroan boluntariotzaren inguruko sentsibilizazio kanpaina partekatu bat urtero egitea finkatu da, eta abenduaren 5a (boluntariotzaren nazioarteko eguna) eta boluntariotzaren balioak ezagutarazteko eta aitortzeko egunaren ospakizuna ere bai.<br>• Eskura dauden boluntariotza programen ezagutza handiagoa lortu da, eta boluntariotzarekin lotutako edukiak gehiago ageri dira komunikabideetan, Nafarroako baliabide eta ekipamendu sozio-komunitarioetan, erakundeetan eta Gobernuaren web-orrietan eta sare sozialetan.<br>• Lankidetza programa bat (hainbat gizarte erakunderen artekoa) aurrera eramateko oinarriak jarri dira, hezkuntza/unibertsitate esparruan boluntariotzaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko, ildo horretan dituzten ekimenak aprobetxatuz. | **A.1- Boluntariotzaren nazioarteko egunaren urteko ospakizuna egitea, boluntarioen eta erakundeen arteko topaketak errazteko.**<br>A.2- Urtero egitea **sentsibilizazio kanpaina** bat boluntariotzaren inguruan, erakunde/esparru desberdinen arteko lankidetzan egina eta kolektibo zehatzetara zuzendua: pertsona jubilatuak, enpresak, ikastetxeak, familiak...).<br>**A.3- Nafarroaorotanlagun plataformaren etengabeko posizionamenduaren estrategia bultzatzea:** sare sozialak, aurkezpen ekitaldiak, zabaltzeko triptikoa, kanpaina birala, etab.<br>**A.4- Hezkuntzan/unibertsitatean sentsibilizazioa lantzeko programaren** proposamena prestatzea (elkarlanean, hainbat erakunderen artean, ildo horretan ari diren ekimenak aprobetxatuz).<br>**A.5- Boluntariotza korporatiboaren programetan parte-hartzea** espresuki sustatzea, EGE enpresa sarearen laguntzaz.<br>**A.6- Boluntariotzaren txostena prestatzea, 2030 Agendako aldaketa eragile aktiboa den aldetik (inkesta).**<br>**A.7- Kanpaina birala, boluntariotzak 2030 GJHei egiten dien ekarpen handia balioan jartzeko** eta helburu horien garrantziaz kontzientziatzeko.<br>**A.8- Boluntario lana egitean lortutako gaitasunen aitortza formala** ahalbidetzeko proposamena. |

## B- INDARTZEA

Boluntariotzako entitateen garapenari eta hazkundeari mesede egitea, boluntarioak artatu eta kudeatzeko prozesuen hobekuntza indartuz

| Ildo eta helburu orokorrak | 2023 Jomugak | 2022-2023 Ekintzak |
|---|---|---|
| B.1- Nafarroako boluntariotzaren egungo kontzeptua eta eredua zehazten dituzten osagai gakoak ezartzea eta adostea.<br>B.2- Boluntariotza erakundeek boluntarioen kudeaketa eta dinamizazioaren arloan dituzten beharrak identifikatzea eta haiei erantzutea.<br>B.3- Boluntarioen eta haiei laguntzeko ardura dutenen prestakuntza sustatzea, askotariko ikastaroak, dinamikoak eta irekiak, eskainiz, eta entitateen eta arloen arteko harremana erraztuz.<br>B.4- Administrazio publikoak boluntariotzaren sustapenean duen inplikazioa garatzea, erantzukizunak argituz maila eta departamentu desberdinetan, eta gizarte erakundeek sustatzen dituzten boluntariotza programen iraunkortasuna zainduz.<br>B.5- Boluntariotza arloko Jardunbide Egokiak ezagutaraztea, eta interes komuneko gaien gaineko gogoeta eta lana egiteko topaketak sustatzea.<br>B.6- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea boluntario ekintzan, sexuan oinarritutako diskriminazio era guztiak, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, ezabatzen lagunduz.<br>B.7- Boluntariotzaren dibertsitatea modu aktiboan bultzatzea, profil eta kolektibo desberdinak atxikiz, kalteberatasun egoeran dauden pertsonak barne. | • Erakundeen, boluntarioen eta teknikarien arteko hainbat lankidetza prozesuren emaitzak biltzen dituzten dokumentuetan jasota daude, alde batetik, Nafarroako boluntariotzaren nortasun ezaugarriak, eta bestetik, boluntariotza erakundeen erronka eta behar nagusiak.<br>• Boluntariotzari laguntza emateko hainbat zerbitzu finkatzen hasi dira, neurri batean, eta hainbat arlotan, boluntariotza erakundeek dituzten beharrak asetzen laguntzen dutenak: boluntariotzaren kudeaketa/dinamizazioa, elkarteen kudeaketa, prestakuntza, sareko lana, boluntarioak lortzea, EBko programak, etab.<br>• Boluntariotza ukitzen duten dirulaguntzen inguruko informazioa eta irizpideak trukatu dira administrazio eta departamentu desberdinen artean.<br>• Aurrerapenak izan dira genero ikuspegia bigarren planetik garatutako neurri guztietan txertatzeko bidean: kanpainak, azterlanak, ebaluazioak, prestakuntza, jardunbide onak, Plana bultzatzen eta jarraipena egiten duten organoen osaera berdinzalea... | **B.1- “Boluntariotzaren Gida”** argitaratzea, elkarlanean egina, Nafarroako boluntariotzaren definizioak eta nortasun ezaugarriak jasoko dituena.<br>**B.2- Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Guneak eskaintzen dituen laguntza zerbitzuak berriro definitzea.**<br>**B.3- Laguntza zerbitzu presentzialak** eskaintzea, batez ere boluntariotzaren kudeaketa eta dinamizaziorako **aholkularitza** indartuz, komunikazioa... (Baloratu LANKIDETZA ZENTRO ESPAZIOA-Iruñeko Udalarekiko elkarlana).<br>**B.4- Urteko prestakuntza eskaintza (presentziala eta telematikoa)**, lehendik daudenen osagarria, **urtean lau ikastaro praktiko antolatuz** arlo hauetan: boluntariotzaren dinamizazioa, elkarteen kudeaketa, sareko lana, gizarte eta genero berdintasuna, boluntarioak atxikitzea, irudiak eta komunikazioa, baliabideak eskuratzea, EB programak, etab. Eskaintza horrek kulturarteko ikuspegia txertatuko du, eta informazioa itzuli beharko du, Nafarroan bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen hizkuntzetara.<br>**B.5- Topaketak eta lan jardunaldi teknikoak** (sei hilean behin), formatu, metodologia, profil... Desberdinekin, jardunbide egokiak partekatzeko hainbat alderdiri buruz: prestakuntza, boluntarioak lortzea eta haien parte-hartzea erakundeetan, genero berdintasuna, emakumeen eta gizonen ardura berdintasuna zaintzaren arloan (NABIk bultzatutako Zaintzaren aldeko Foru Ituna), jasangarritasuna eta ingurumen arloko sentsibilizazioa, bazterketa, etab.<br>**B.6- Foru departamentu desberdinetatik eman eta boluntariotza ukitzen duten dirulaguntzen inguruko informazio eta irizpide guztiak aztertu** eta jasoko dituen txostena egitea.<br>**B.7- Boluntariotza korporatiboari buruzko jardunaldia,** arlo horretako jardunbide egokiak identifikatzeko, enpresek inplementatutako Gizarte Erantzukizuneko estrategien esparruan, eta hirugarren sektorearekiko lankidetzarako bestelako aukerak aztertzea.<br>**B.8- Boluntariotzari buruzko txosten espezifikoa genero ikuspegitik,** dauden arrakala eta desberdintasun nagusiak identifikatuz. |

## C- KOORDINATZEA

Eragile esku-hartzaile guztien arteko koordinazio eraginkor eta iraunkorrerako sistema bat garatzea, bermatuko duena Nafarroan modu egonkor, sendo eta koherente batean bultzatzen dela boluntariotza.

| Ildo eta helburu orokorrak | 2023 Jomugak | 2022-2023 Ekintzak |
|---|---|---|
| C.1- Urte batzuetarako ekintza plana, Nafarroako boluntariotzaren garapenean aurrera egiteko, Boluntariotzaren Departamentu arteko Batzordeak sustatuta.<br><br>C.2- Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluak Nafarroako boluntario ekintzaren sustapenean eta jarraipenean duen papera eta ordezkaritza finkatzea.<br><br>C.3- Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Puntua eta haren web-orria finkatzea, Departamentu arteko Batzordearen, Boluntariotzaren Mahai Teknikoaren, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluaren eta Foru Komunitatearen Hirugarren Sektorearen beraren arteko lan koordinatua eginez.<br><br>C.4- Sareko lana sustatzea, boluntariotzaren erakundeen eta inplikatutako gainerako eragileen artean, bigarren Planaren inguruan, eragile bakoitzari ekintza edo prozesu bakoitzean dagokion eginkizuna zehaztu eta argitzeko.<br><br>C.5- Nafarroako Gobernuaren Boluntariotza Politika argitzeko lanean aurrera egitea, gobernantza, herritarren parte-hartzea, hirugarren sektorea, gizarte politika eta hainbat arloren aldeko apustuarekin bat eginez. | • Urte batzuetarako ekintza planak, Nafarroako Kontseiluak eta Departamentuarteko Batzordeak bizirik diraute eta proaktiboak dira, elkarrekin lerrokatuta daude, lan dinamika egonkor batekin, NAFARROA OROTAN LAGUN estrategiari bultzada eta jarraipena emateko lagungarria dena.<br><br>• Herritarren Parte-hartzeko Kontseiluarekiko koordinazioa eta sinergia sortu dira.<br><br>• Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunea finkatu eta garatu da; Boluntariotzaren inguruan Gobernuak aurrera eramaten duen jarduketa bideratzen du, eta hainbat zerbitzu eskaintzeko erreferentziazko esparrua da, bermatu egiten baitu Nafarroako boluntarioekiko eta elkarte sareekiko lotura eta elkarlana.<br><br>• Boluntariotza Planari atxikitako eragile sare zabala dago, planteatu diren ekintzetan parte hartu dutenak, proposamen eta balorazioak helarazi dituztenak, eta prest daudenak 2022-2023 Planaren ebaluazioan eta hurrengo Plana prestatzeko prozesuan parte hartzeko.<br><br>• Hobeki ezagutzen da Nafarroako hirugarren sektorearen egituraketa, boluntariotzak han jokatzen duen rola, eta hasierako jarrera bat hartu da, Nafarroako Foru Komunitatean lantalde bat edo Boluntariotzaren sare bat eratzeko aukerari dagokionez.<br><br>• Nafarroako Gobernutik aurkeztu da haren Boluntariotza politika aurkezten duen dokumentua.<br><br>• Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetza esparrua zehaztu da, modu progresiboan hedatzeko NAFARROA OROTAN LAGUN lurralde osora, eta orobat Iruñeko Udalarekin eta boluntariotzara bideratuta dituen zerbitzuekin. | **C.1- 2022-2023 Ekintza Plana inplementatzea**, eragile desberdinen inplikazio progresiboarekin aurreikusitako ekintzetan.<br><br>**C.2- Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunearen zerbitzuen katalogoa** eta Nafarroako boluntarioekin nahiz elkarte sareekin sareko lana egiteko duen estrategia azaltzea.<br><br>**C.3- Analisia eta sintesi txostena foru departamentu guztien aldetik, boluntariotzarekin une honetan duten lotura azalduz** (programak, lankidetzak, dirulaguntzak, laguntzak, zerrendak eta datu baseak...).<br><br>C.4- Nafarroako Gobernuaren hasierako dokumentu bat editatzea, **Boluntariotzaren inguruan duen politika** azalduz.<br><br>**C.5- Gobernuaren eta Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetza akordioa** NAFARROA OROTAN LAGUN lurralde osora zabaltzeko modu progresiboan.<br><br>**C.6- Iruñeko Udalarekiko lankidetza akordioa:** Adb.: sinergiak Lankidetza Zentro Espazioarekin, beste udal baliabideak, etab.<br><br>**C.7- Prestakuntza ekintza espezifikoa berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren inguruan**, Planari bultzada emateko ardura duten agentzietako pertsonentzat.<br><br>**C.8- Plana bultzatzeko ardura duten erakundeen lan dinamika eta funtzioak finkatzea:**<br><br>Urtean **bi** aldiz biltzea **NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN KONTSEILUA**<br><br>Urtean **3** aldiz biltzea **BOLUNTARIOTZAREN DEPARTAMENTU ARTEKO BATZORDEA**<br><br>Urtean **10** aldiz biltzea **BOLUNTARIOTZAREN MAHAI TEKNIKOA** |

| D- INFORMATZEA | | |
|---|---|---|
| Hobeki ezagutzea boluntariotzak Nafarroan bizi duen egoera eta arlo horretan diharduten eragileen beharrak. | | |
| **Ildo eta helburu orokorrak** | **2023 Jomugak** | **2022-2023 Ekintzak** |
| D.1- Nafarroako boluntariotzaren tamaina, hedapena eta ezaugarri nagusiak ezagutzea.<br>D.2- Hurbilpen kualitatibo bat egitea Nafarroako boluntariotzara, jarduteko esparruak eta eragile nagusiek atzemandako joerak eta beharrak aintzat hartuta: pertsona boluntarioak, erakundeetako boluntariotzaren arduradunak, hirugarren sektoreko sareak, foru departamentuak, etab.<br>D.3- 'Nafarroako boluntariotza elkarteen mapa' egitea, Nafarroako Boluntarioen Erroldaren zehaztapena eta irismena hobetzen lagunduko duelako, eta beste erregistro batzuekiko sinergiak baloratzea: Elkarteen erregistroa, herritarren parte-hartzeko entitateen erregistroa, etab.<br>D.4- Boluntariotzaren egoera aztertzea foru lurraldearen dibertsitatea kontuan hartuta.<br>D.5- NAFARROA OROTAN LAGUN web-plataforma modu progresiboan garatzea, eduki, erabilera eta aplikazio berriekin, eta horrekin batera, informazio sistema bat, informazioen hedapen proaktiboa bermatuko duena (banaketa zerrendak interes taldeen arabera, buletinak, etab.). | ● Nafarroako boluntariotzari buruzko bigarren azterlan bat egin da 2023ko bigarren seihilekoan, joera nagusiak identifikatzeko aukera ematen duena, 2019ko lehenengo azterlanarekin alderatuta.<br>● NAFARROA OROTAN LAGUN web plataforma finkatu egin da, boluntariotza programen eta erakundeen erakustoki gero eta zabalagoa eta errealagoa eskaintzen duela, jarduketa eremuaren arabera, udalerri-lurraldeen arabera eta beharren nahiz profilen arabera... antolatuta.<br>● Badira banaketa zerrenda elektroniko zabalak, eragile motaren arabera bereiziak (gizarte erakundeak, AAPP, baliabide sozio-komunitarioak, enpresak-boluntariotza korporatiboa, etab.) boluntariotzaren inguruko informazio interesgarriak modu arin eta errazean zabaltzeko aukera.<br>● Boluntarioen errolda mantentzea egokia den edo, beharbada, Nafarroako beste erregistro batzuekin lotu/integratzeko aukera berraztertu da, betiere bikoiztasunak saihestuz: elkarteen erregistroa, herritarren parte-hartzeko entitateen errolda, etab. | **D.1- NAFARROA OROTAN LAGUN web plataforma** sustatzea eta garatzea, boluntariotzaren erakunde eta programen ikuspegi orokor gero eta zabalago bat eskainiz.<br>**D.2- Banaketa elektronikoaren zerrendak abiaraztea**, eragile motaren arabera bereiziak (gizarte erakundeak, AAPP, baliabide sozio-komunitarioak, etab.) aldian behi zabaltzeko, arintasunez eta eraginkortasunez, boluntariotzaren inguruko informazio interesgarria (II. Planari buruzko informazioa, albisteak, argitalpenak, ikastaroak eta jardunaldiak...).<br>**D.3- Boluntariotzaren erroldaren** inguruko proposamen bat prestatzea (egokia den baloratuz, beste erregistro batuekiko teilakatzea, etab.).<br>**D.4- Nafarroako elkarteen errealitatearen eta herritarren parte hartzearen mapa orokor bat egitea** (erakundeak identifikatzea eta alde-aldeko kopurua zehaztea, eremuen arabera, partaidetza ekinenen arabera, programa komunitarioen arabera...).<br>**D.5- Nafarroako boluntariotzari buruzko bigarren azterlana** (2023ko azken hiruhilekoan egitea). |

NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030